



2021/02/19ko informazio-oharra

Administrazio Elektronikoari buruzko terminoen glosarioa. 2021

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak administrazio elektronikoari buruzko terminoen gaztelaniazko/euskarazko glosarioaren hirugarren bertsio eguneratua zabaldu du

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak argitaratu berri du herri-administrazioetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien esparruan erabilera zabala duten kontzeptuen glosarioa. Hirugarren bertsio eguneratua da.

Gaztelaniazko bertsioaz gain, IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialak egindako euskarazko bertsioa ere eskaintzen da, eta, ikuspegi normalizatzaile batetik, gero eta ohikoagoa den termino-kopuru zabala jasotzen da: 217.

Tresna horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek erabiltzen dituzten 2.327 webguneko administrazio elektronikoko teknikarien, web-kudeatzaileen eta itzulpen-langileen lana erraztu nahi da.

Glosario hori '2021ko Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika' egiteko oinarria izango da, besteak beste.

Glosarioan sartzeko:

[Administrazio elektronikoari buruzko terminoen glosarioa. 2021](#)